

AMURRIO “ALZHEIMERRAREKIKO UDALERRI SOLIDARIO” IZENDATZEARI BURUZKO ERAKUNDE - ADIERAZPENA.

Udalbatza Osoak, 2016ko irailaren 29an egindako saioan onartu zuen, Amurrio Alzheimerrekiko udalergi solidario izendatzea eta honako erakunde-adierazpen hau onestea:

“Jakín badakigu Alzheimerra deméntzien artean nagusia dela eta, gaur egun, deméntzia mota honen eragina 3,5 milioi pertsonék pairatzen dutela estatu mailan, gaixoak eta hauek zaindu behar dituzten senideak kontuan hartuta.

Jakín badakigu Alzheimerra osasun eta gizarte mailan ematen den arazoa dela, familia delarik zama handiena bere gain hartzen duena.

Jakín badakigu oraindik ez dagoela ez tratamendu eraginkorrik ezta prebentzio sistema egokirik ere gaixotasun larri honen ondorioak mugatzeko.

Jakín badakigu hurrengo hogeí urtetan gaixotasuna gailenduko dela gaixo kopurua bikoiztuz, batez ere, biztanleriaren bizitza itxaropenaren luzapena dela eta.

Jakín badakigu familia batean Alzheimerrek sor ditzakeen zuzeneko zein zeharkako gastuak urtero 30.000 eurotik gorakoak izan daitezkeela.

Jakín badakigu gaixo eta senideen beharrei aurre egiteko eskura dauden osasun eta gizarte baliabideak eskasak direla.

Jakín badakigu, Europako Legebiltzarrak, Europako Komisioak eta, duela gutxi, Munduko Osasun Erakundeak hainbat gomendio luzatu dituzten arren, ez daukagula gaixotasun honen kalteei aurre egiteko plan zehatzik.

Jakín badakigu Euskadiko herritarren artean gaixotasunak eragin nabarmena duela.

Biztanleria zahartzen ari dela eta, horrek deméntziaren bat (Alzheimer motakoa, batez ere) jasateko dakarren arriskuaren jakitun izanik, Amurrioko Udalak arazo larri honekiko duen kezka adierazi nahi du; horretarako “Alzheimerrekiko Udalergi Solidario” izatea erabaki dugu..

Honela, ekimen instituzional honekin, Amurrioko Udalak beste udalergi batzuentzat adibide izan nahi du eta, bide batez, osasun eta gizarte arloetako arazo larri honen inguruko sentsibilizazioa eta gizartearen zein instituzio eta politikarien kontzientziazioa bultzatu.

“Alzheimerrekiko Udalergi Solidario” bilakatuz, Amurrioko Udalak Alzheimerri buruzko Aliantzak bultzatu duen egitasmoaren alde egiten du. Egitasmo horrek Alzheimerren inguruko estatu mailako politika abian jartzea aldarrikatzen du”.